



BITTOR GAUBEKA DUO
(1894-1979)

Egilea:

ENEKO BARRUTIA

FAMILIA

Bittor Gaubeka Duo Bermeon jaio zen 1894ko apirilaren 12an, Joaquín Gaubeka eta Apolonia Duoren semea. Bere aita Larrauriko semea izan zen, eta ama, berriz, mañuarra, Bermeoko auzo batekoa.

Bere aita Filipinetako irletan ibiltzen zen itsasgizon. Euskaraz gain gaztelania eta ingelesa ere ondo menperatzen zituen gizona zen. Filipinetarako bidaietan hiru urte egiten zituzten barkuaren joan-etorrian. Bera ibilitako azkenengo barkua Etxeita idazle mundakarrarena izan zen Etxeita Espainiak Manilan izan zuen azkenengo alkatea izan zen garaian.

Bittor bermeotarra izan zen eta asko maite izan zuen bere herria. Nahikoa gaztetxo zelarik bere herria utzi zuen ikasketak egiteko.



Bittor Gaubeka Duo, 1894-1979

GALO GAUBEKA

Bere anaia Galo Gaubekaren itzala erabakigarria izan zen Bittor Gaubekaren formazioan eta ibilbide intelektualean. Abade zuen anaia honek antolatu zuen Katalunia aldera joatea ikasketak burutzeko. Intelektual handia izan zen Galo, gutxi bezalakoa, Bittorren anaia nagusiaren eragin hau guztiz funtsezkoa da bere lana eta ibilbidea ulertzeko.

Kulturaren munduan anaiak sartu zuen bere ikasketak bideratuz. Galo Gaubeka jakintsu handia izan zen, iraultzailea zentzu askotan, berak jarri zuen bere anaia jarraituko zuen bidean. «Zu kultura aldetik sartuko zara. Nola aurkitzen da kultura? Tipografiaren bitartez. Tipografia irarkola zen eta kultura».


Galo Gaubekak lan handia egin zuen, batez ere herriko umeekin eta gazteekin. Koaderno asko eta asko idatzi zituen gai askoren gainean. Bittorrek inprimaturiko lehenengo lanak, Axpen eduki zuen lehenengo irarkolan, bere anaiarenak izan ziren.



Galo Gaubeka. Bittorren anaia

KATALUNIAKO IKASKETAK

Bere anaia Galoren bitartez hara joanda, salestarrekin ikasi zuen inprimategiko langintza. «Irarkintzea» deritzon artikulua horrelaxe sinatu zuen, hain zuzen ere, «Gaubeka'tar Bittor, Irarkarija. Sarria-Barcelona'ko irar-erti-ikastolakua», han ikasi izanaren harrotasuna erakutsiz. Salestarren eskola hau Espainian lehenengoa edo lehenengoetarikoa izan zen eta ospe handikoa.



Don Francisco de Ucelay, Bittorren irakasle izandakoa

Beste alde batetik Katalunian lanbidea ikasi ez ezik beste gauza batzuk ere ikasi zituen, katalanek euren hizkuntzari eta nortasunari zioten maitasunak txunditu egin zuen, baita kaleko jende arruntak zuen kultura-mailak ere, bere ustez hau beste leku batzuetan zegoena eta Euskal Herrian zegoena baino hobea zen eta. Euskal Herriak noiz edo noiz konturatu behar zuen nola abadeen lanari esker zeukan euskarak zeukan etorkizuna, hauek euren hizkuntzan jakintsuak izan ez balira euskara ezjakinen hizkuntza izango zela. Bittor horrekin konturatu zen. Berarentzat astinaldi handia izan zen Bartzelonako jendearen jakintza ikustea, hango abadeek, hango medikuek eta hango abokatuek katalanez egiten zuten eta euren arloko gaien gainean katalanez irakurtzen zuten.



Katalunian zegoela, hango eskolak luzaturiko agiri bat

Berak esaten zuenez, «Hau Euskal Herria izan beharrean *tentel herria* da», politikari eta eztabaidari garrantzi handiagoa ematen zaio kulturari baino. Estropadekin, futbolarekin, pilotarekin eta abarrekin jendea zoratuta egoten da. Berdin esaten zuen politikagatik ere: «hemen partidu asko daude eta herririk ez dago hemen. Herritasuna, nortasuna da garrantzitsuena eta hortxe dago sustraia. Gu euskaldunak gara eta kito». Horretan alde handia ikusten zuen katalanen eta euskaldunen artean, hango esperientzia baliagarria izan zitzaion bai bere lanbidearen aldetik eta bai beste alderdi askotatik ere.

Katalunian lau edo bost urte egin zituen hango ikasketak amaitu eta herrira itzuli zen arte.

BAI NIK IKASI!

Kataluniatik etxera etorri zenean, han urte batzuk igarota, euskara nahikoa ahaztuta eduki zuen. Bere amak, berriz, hizkuntza bakarra zuen euskara eta amarekin komunikazio-arazoak izatera heldu zen. Lotsatu egin zen eta euskara sakontzen hasi zen, laster bilatu zion konponbidea egoera horri Bitorrek. «Bai nik ikasi!» izaten zen berak sarri errepikatzen zuena, bere ikasteko gogo eta grina ondo erakusten duena. Euskara berreskuratzeari ekin zion eta bai ondo ikasi ere. Orduxean konturatu omen zen Bittor gure hizkuntzaren aberastasunez eta ezaugarriez.



Emazteaz eta seme-alabez inguratirik:
Catalina, Miren, Agustín, Víctor, Paco
eta Josu



Bittor Gaubeka eta Catalina Azpiri, euren ezkontza-egunean

Ikasteko grinari edo gogo horri bere azkenengo egunetara arte eutsi zion. Bere alaba zaharrenari esaten zionez: «Mirentxu, ikusten duzu zenbat urte dauzkadan? laurogeita bi urte eta doktrina errepasatzen dut nik oraindik». Beti ibiltzen zen irakurri eta irakurri. Nagusia izan zenean begietan ebakuntza eginda zeukan eta asko nekatzen zen baina bere egarria beti izaten zen irakurtzea eta ikastea, azkenengo egunera arte izan zuena.

GARAI LATZAK

Bittorrek, gerra-garaia bizi eta pairatu zuten beste gizon-emakume askoren antzera, arrisku ugari eta bizipen latz asko igaro zituen. Are gehiago bere euskaltzaletasunagatik eta euskararen alde egin zuen lanagatik. Hala ere, gertaera gogor hauek gainditu egin zituen neurri handi batean eta ez zuten lortu bere helburutik desbideratzea.

5



Seme zaharrenaren ezkontza-egunean

GERRA ETA SUA

Bartzelonan ikasketak egin zituen garaian gerra ikustea egokitu zitzaion eta gauza bat kontatzen zuen batez ere, «gerra eta sua», «su haiek» esaten zuen beti, «andre haiek negarrez, beste haiek jausita». Beragan sakon sartu ziren Bartzelonan ikusitakoak. Bizipen haiek eragin handia izan zuten beragan.

Berak ez zuen inoiz borroka ulertu, bere ustez borroka gizonaren ezjakintasunaren erreakzioa zen; horregatik egon zen beti gerraren eta borrokaren kontra. Bere ametsa izan zen beti jakintzaren bidez,

hezkuntzaren bidez eta Euskal Herriko hizkuntzaren bitartez aurrera joatea. Maitasuna eta hizkuntza, horiexek izaten ziren bere bultzatzaileak.

Berak bere herrian, euskaldunen artean, ezjakintasun guztiz handia zegoela ikusten zuen. «Euskaldunok ez dugu geure historia ezagutzen. Taberna asko daude eta biblioteka bat ere ez, ez dago hemen ikasteko zaletasunik». Herriaren ezjakintasun horrek itzaltasun handia ematen zion. Jakintzak pertsonari arima eta begiak zabaltzen zizkiola ikusten zuen. Berak bere irarkolaren bitartez kultura zabaldu nahi zuen herrian.



Seme Paco, errain Miren eta honen gurasoekin

ERBESTALDIA

Erbestea guztiz gogorra izan zen Bittorrentzat. Frantziara alde egin behar izan zuen bere ezagun batzuek bere bizitza arriskuan zegoela abisatuta. Beste askok ere eskapatu zutela ikusirik, hala esan zion bere emazteak:

—Bittor! Frantziara joan beharko duzu.

—Ni Frantziara? Baina nik zer egin dut, ba?

—Ez duzu ezer egin, baina zure irarkolako lanengatik da, nahikoa duzu hori bizia galtzeko.

Gernikako bonbardaketatik egun bira, Bermeoko itsasontzi batean Sananderera joan ziren handik beste itsasontzi batek eroango zituelakoan. Sananderen gorriek harrapatu zituzten eta hauek, bere itxuragatik abadea-
-edo ote zen pentsaturik, albo batera utzi zuten hiltzeko asmoz. Bittor sen handikoa zen eta zer edo zer barruntatu zuen. Berak badaezpada ere inprentan komunisten aldeko propagandak-eta hartu zituen. Zer zeraman ikusirik, propaganda hartaz galdetu zioten eta Bittor komunismoaren gainean hasi zitzairen berbetan, bere gauza onak ere badauzkala esanez. Etorri handikoa zenez eta bere berba erraz sartzen zenez, lortu zuen hauek libre uztea, besteek «hau geutarra da» pentsatu zutelarik.



Bittor eta bere lehengusua,
Santiago Duo

Frantziako erbestea gogorra izan zen. Bordelera heldu eta hainbat kilometroko bidea egin behar izan zuten oinez helmuga zen herriraino. Han baldintzak ez ziren batere onak eta tristura handi batek jo zuen gure Bittor. Jan gura ezik egoten zen eta guztiz gogor gertatu zitzaion egoera hori. «Jan egin beharko duzu, zeure herrira bizirik itzuli gura baduzu», gogor egiten zioten. Bera guztiz hunkituta egoten zen hemengo jendeak eta Frantziako masoiek emandako laguntzagatik. Han, Frantzian, masoiek lan handia egiten zuten errefuxiatuekin, mantak, botikak eta janaria ematen zizkieten. Bittorrek alabari kontatzen zionez: «konturatzen zara zu mazoiakatik nolako gauza gogorrak entzun ditudan nik eta zein gizon onak diren laguntzen. Ez dugu esan behar txarrik inorgatik ere, ez komunistakatik ez mazoiakatik».

Familiak, handik-hortik-hemendik ahalegina eginda, trukaketa baten bitartez Euskal Herrira berriro ekartzea lortu zuen. 1940an herrira itzuli zenean bere buruhausteen iturri izan zen lanari ekin zion berriz ere.

JAZARPENA ETA ARERIOAK

Euskal kulturarentzako garai latza bizi behar izan zuen eta erbestean ez ezik herrian bertan ere arerioak eta kontrakoak eduki zituen. Berak ezin zuen hori ulertu eta guztiz gogorra egiten zitzaion herritar batzuk bere aurka egotea.

Behin Bermeoko osagile batek, erregezalea-edo izandakoak eta gero frankisten aldera joandakoak, nahikoa gutun txarra jaso zuen, bere kontrako mehatxuak eta irainak zituena. Idazkeragatik Bittorren letraren antzekoa edo berdina zela pentsatu zuten. Gaubeka bere Bermeoko tailerrean beharrean zegoela polizia bi joan zitzaizkion kaleko jantzita. Polizia hauek Bittorri komisaldegira eurei laguntzeko eskatu zioten deklarazio batzuk egin behar zituela eta. Nahiz eta berak ez zuela ezer egin esan, eraman egin zuten. Bere emazteak gauerako gabardina hartzeko esan zion baina poliziek ez zela beharrezkoa erantzun zioten, gauerako gizona bere etxean egongo zela esanez. Ez zen etxera itzuli eta Bilbora eroan zuten.



Gregoria Aspiazurekin

Bertan medikuak jasotako gutunagatik «consejo de guerra» deritzona egin zioten Bitorri. Zein abokatu hartuko zuen galdetu ziotenean berak ez zuela abokaturik behar erantzun zuen, berak defendatuko zuela bere burua bere egiarekin. Gutuna erakutsi ziotenean bere letraren antzekoa zela onartu zuen baina ez zela hura berea frogatzeko

idazteko toki bat eskatu zuen zioena erakusteko. Tipografoa zenez eta hain argia bere azalpenetan onartu egin zuten hura ez zela berak egindako lana izan. Hain utzi zituen zurtuta, hala esan zioten agurtzean: «gizon handia zara zu eta zu lako gizonen beharra dauka Espainiak».

10

Gure kulturaren lan garrantzitsuak argitaratu dira Gaubekarenean. Bertan argitaratu zutenen artean asko edo batzuk, behintzat, Bermeorekin, Gernikarekin edo inguruarekin zerikusia izan dutenak dira. Gaur eguneko ikerlariak ere, Bermeo, Busturia edota Gernikako historiaz bibliografia topatu nahi izanez gero, nahi eta nahi ez, Bittorrek idatzitako eta argitaratutako liburuekin egingo du topo.



Hala ere, ez dugu pentsatu behar Bittorren lana eskualde honetara mugatzen denik, ezta gutxiagorik ere. Bere asmoa behin baino gehiagotan Zornotzan ere irarkola irekitzea izan zen, harako joera izaten zuen. Beteko ez zuen beste amets eder bat Bilbon argitaletxe bat zabaltzea izan zen. Bere ametsa hizkuntza izaten zen beti eta hizkuntzaren etorkizunerako argitaratzailea beharrezkoa zela ikusten zuen. Bermeotik Bilbora aldatzeko asmoa izan zuen, han erraztasun handiagoa izango zuela eta. Argitaratzailea, behintzat, Bilbon egongo zen, nahiz eta Bermeon jarraitu irarkolarekin beharbada. Horrexetarako ere izan zituen harremanak Azkuerekin eta makina berezi bat ere erosi zuen, hemen egon zen lehenengo makina zapala.

Bittor Gaubeka ez zen inprimatzailea izan lana topatzeko, mugimendu baten bultzatzaile izateko baino. Inprimaketaren bitartez formazioa eta kultura zabaltzea zen bere asmoa eta horixe izan zen bere anaia Galok barneratu zion burubidea.

IRARKOLAK

Behin Bartzelonako egonaldia amaituta eta bere herrira itzulita lehenengo beharrean hasi zenean, oraindik mutila zela, beste batzuentzat hasi zen honako irarkola bi hauetan: Goitia eta Ormaetxea eta Jaungoiko-zale.

Goitia eta Ormaetxean hemeretzi urte zituela, 1913an, hasi zen lanean. Bere ikasketak amaitu ondoren hauxe izan zen lanbideari eutsi zion lehenengo tailerra. Urte bi edo horrela egin zituen hemen.



Zornotzan, Jaungoiko-zale elkarteak erlijioaren gorabeheretarako inprenta txiki bat zeukan eta haraxe joan zitzaigun bertako zuzendaria zen Zirilo Arzubiagaren bitartez. Dena dela, Zornotzan denbora gutxi egin zuen.

Hauetan lan egin eta gero bitartekoak ahal bezala lortuz bere kontura jarri zen, nahiz eta zati baterako zorrak leporatu. Hiru izan ziren ordutik aurrerako irarkolak: Axpe-Busturikoa, Bermeokoa eta Gernikakoa.

Beste irarkola batzuetan behar egin ostean berak jarririko lehenengoa Busturiko Axpe auzokoa izan zen. Bere familia orduan han egon zen bizitzen, bere anaia Galo Axpeko abadea izan zen garaian.

Irarkola horretan egindako lehenengo lanak bere anaia Galoren *Busturiko Ikastia* eta *Umetxuen Adizkidea* izan ziren.

Handik gutxira bere jaioterrira edo familiaren herrira aldatu zen eta Gaubeka irarkolako libururik ospetsuenak argitaratu zituen tailerra jarri zuen Bermeon. Hemengo produkzioa oso ugaria izan zen eta bertan bereganatu zuen ordutik aurrera izango zuen ospe eta izen ona.

Azkenengo irarkola Gernikan jarri zuen eta hauxe da, gaur egunean ere, jarraipena daukana. Gaubekak kokapen desberdin bi eduki ditu Gernikan, lehenengoa, oraingo Banco Central dagoen lekua izango litzateke eta bigarrena, gaur egunekoa, trenbidearen beste aldean dagoena.



IRARKINTZEA

Artikulu eder batean Bittor Gaubekak bere lanaren inguruko gogoetak egiten ditu. Artikulu horri «Irarkintzea» deritzo eta 1921ean agertu zen *Euzko Deya* aldizkarian. Hara hemen artikulu horren hiru zati oso esanguratsu:

«Ludijon diran asmakixunetatik irarkintzea da notintzeak biar-ixan geyen daukona, ta aulantxe dakuskegu beste erti ta lanen aldian irarkintzea danentzakotuta dagola ta bere laguntza bikaña iñori eztautsola ukatzen: txiruak nai aberatsak bere biar-ixana dabe. Altsukabe ta auldubak be bai; iñorbattek zeozer aldeztu gura daunian, edo egija erakutsi, edo eretxiren bat atzaldtu, irarkintzeak gustijoi bere laguntza damotse. Bakarrik ez-jakiñai laguntza ori ukatzen dautso.»

«Urte gitxi-barruban asmakixun eder au bazter gustijetara, erri ta enda gustijai lagun-egitten zabaldu da. Eta beronen emokayakaz ludittarrok, aideko ta senide lez egin garuaz, eta emokayok biar-biarrak egin yakuz. Bestelan, izparringi ta idaztijak ludittik kentzia ba'litz ¿bixitxa neketsubago ez-ete-litzakigu egingo? Beintzat eskier egon ginddekez utsune andi bat gixabatzan aurkittuko geukela.»

(...)

«Irarkiñok, batzutan ondasuna edo txarkerija errayetan erabilten dau; mattasuna edo gorrotua be bai; arrokerija edo apaldasuna beste batzutan; abertzaletasuna edo zuzengekerija; argija edo illuna, ta bixitxa edo erijotza. Errayetan daukona gettu ta ugaritzen dau.»

«Irarkin ori bikaña ta zinddua ixango da errai onak ba-daukoz, ta gustiz txarra errai emokor orreik dongiak ba-dira; gustiz onurakorrak egijak ba-darabiltz; gustiz galkorrak arrokeri ta ustelkerizko barruba ba-dauko.»

(...)

«¡Bai-da lan garrantzitsuba irarkarijena! Eurak irarkin-izkillu orreik gertau biar dabez gixabatz onetan argijak eta illunak, guzurak eta egijak darabilten gudaketa gogorrerako.»

Gaubekaren lana, gainerakoan, artisau-lana izan zen, arta edo ardura handiz aurrera eramandakoa. Lehenik kutxan prestatzen zituen liburuak, letrarik letra eta ikurrik ikur, lana hainbeste errazten duen linotipiaren laguntzarik gabe. Milaka eta milaka orrialde lantzen zituen letra-tipoak eta tamainak aukeratuz, argi gutxirekin eta hautsak eta inprimatzeko tinten usainak sortutako giro berezi horretan.

Bertoko idazle askok eta kanpoko idazle askok ere Gaubekarengan aurkitzen zuten euren laguntzailerik onena lanak argitaratzeko orduan. Besteek idatzitako originalak berak egindakoak izan balira bezala hartzen zituen. Gaia Euskal Herriaren ingurukoa izanez gero, Bitorrek egileari bere ohar batzuk egingo zizkion, berak beretara jasotako kulturaren iturritik. Bitorrek argitaratutako liburuak, beraz, era askotakoak eta gai asko ukitzen dutenak dira, nahiz eta gehienak eta gogokoenak Euskal Herriaren kulturaren eta euskararen gainekoak izan.



BERE GARAICO KULTURA JAKINTSUEKIN


Bittor bere garaiko gizona izan zen, joera askotan aurreratua izan arren, bere herrian kulturaz inor gutxi arduratzen zen garaian aitzindari eta bidegile izan genuen-eta. Hartu-eman ugari izan zituen orduko kultura arloko jendearekin. Harreman hori bertokoekin ez eze kanpokoekin ere izan zuen.

Denak ezin aipatuko ditugu baina esanguratsuenak edo hurren eduki zituenen gainean berba bi esango ditugu.

PABLO ZAMARRIPA

Laredon jaio zen abade eta idazle bizkaitar honek bere bizitzaren zati handi bat Bermeon igaro zuen, nahiz eta bera bermeotarra izan ez. Familia Txorierrikoa zuen, Asuakoa, eta herri bi hauetan bizi izan zen. Bermeon zoroetxeko kaperaua izan zen eta Gaubekaren etxean gau eta egun egoten zen ia.

la bere lan guztiak Bittorrek argitaratu zizkiola esan genezake, liburuen izenburuak ikusten baditugu: *Anayak gara: ipuiña*; *Conjugaciones guipuzcoanas*; *Firi-fir: (ipuin ta naste)*; *Gramática vasca*; *Kili-kili: barre-ipuiñak* eta *Vocabulario vasco-castellano*.



Pablo Zamarridak ere, Bittor Gaubekak legetxe, Azkuerekin hartu-emanak izan zituen eta hiztegian bere laguntzailea izan zen.




RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE

Azkueren ama mundakarra izan zen eta bere bitartez ezagutu zuen Bittorrek, ume-umetatik eduki zuten hartu-emanak. Bermeotik Mundakara hiru kilometroko bidea baino ez dago eta herri bi hauek betirik egon dira estuki lotuta euren artean.

Beharrez hasi zenean Azkuek lan batzuk eman zizkion. Ez dugu ahaztu behar Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkari guztiak Gaubekaren inprentan argitaratu zirela, hainbat urtean.

Bittor Gaubekak mirespen handia zion Resurrección María Azkuek eginiko lanari eta jakintsu handitzat zeukan hau. Sarri erabili eta goraltzen zuen bere *Diccionario vasco-español-francés*, baita *Euskalerriaren yakintza* ere. Berak zioenez eurek dendan zeukaten libururik onena azkenengo hau zen, jendeak liburu on bat gura zuenean horixe gomendatzen zuen Bittorrek. Bere iritziz horrelako libururik ez zen inoiz arinago idatzi, Euskal Herriko kantak, ipuinak, esaerak, dena zegoelako han jasota.

Azkueren heriotzaren berri jakin zuenean hauexek izan ziren bere berbak: «gizon handi bat hil zaigu Euskal Herrian. Inork ez du beragatik ezer esan, inork ez du maite izan, eta oraindik negar egin beharko dugu beragatik». Bere ustez Azkue filologorik handiena izan zen, Euskal Herriko gizonik handiena.



Erderismos, Altubereren lanik ezagunena



Altubereren beste lan bat
Euskera aldizkarian

SEBER ALTUBE

Arrasaten 1879an jaio eta Gernikan 1963an hildako euskal idazle eta batez ere euskararen ikerlari zorrotz eta handi honek hartu-eman ugari izan zituen Bittorrekin. Seber Altube oso lotuta egon zen Gernikako herriarekin, bigarren errepublikaren garaian bertako alkatea izan zen eta musika-bandaren sortzailea ere bai.

Bere lanik garrantzitsuenak Gaubekaren irarkolan argitaratu zituen, edo liburu batzuen azalean irakur dezakegunez Gaubekaren «idaztegia-irarkola»-n. Euretariako garrantzitsuenak ondokoak izango lirateke: *Erderismos*; *El acento vasco (en la prosa y en el verso)*; eta *Observaciones al Tratado de «Morfología Vasca» de Don R. M. de Azkue*. Azpimarratzekoa da hauek oso liburu garrantzitsuak eta eragin handikoak izan direla euskararen azterketan, *Erderismos* batez ere.

ROBUSTIANO ORTUZAR

Robustiano Ortuzar 1883. urtean jaiotako abade bermeotarraren *Oroigarriak: Bermeoko arrantzaleen bizikeraz eraturiko antzerkiak* liburua ere argitaratu zuen, 1925ean, Azkueren sarrera bat duela. Liburu honetan Bermeoko euskara bizian idatzitako antzerki labor batzuk agertzen dira. Agertzen dituen gertaeretako protagonista Bermeoko herria bera da, ondo ezagutzen zituen Ortuzarrek bere jaioterriko ohiturak eta horiexek erakusten ahalegintzen da, arrantzaleen bizimodua eta enparauak agertuz.

Bitorren seme-alabek diotenez, Ortuzar lagun handia izan zen, anaia modura edukitzen zuen berarekin hartu-emana.


Hauetz gain, beste asko ere aipa litezke, euren artean Zirilo Arzubiaga —Jaungoiko-zale-ko burua—, Francisco Belaustegigoitia, Angel Zabala Otxamiz-Tremoia —hau Bermeoko udaletxeko idazkaria izan zen eta *Historia de Bermeo* liburua idatzi zuen—, Gabriel Jauregi abadea eta Zeanuriko semea izan zen Gabriel Manterola abadea, besteak beste.

HERRIAREKIKO HARTU-EMANAK

Kultura handikoa izan arren ez zuen harrokeriarik erakusten eta edonorekin jardungo zuen herriko kulturaren gainean edo era guztietako kontuak esaten. Gizon apala zen eta oso gustukoa zuen herriko jendearekin ere berak erabiltzen zituen gaiez hitz egitea. Trenean ibiltzea asko gustatzen zitzaion eta Bermeoko andreekin batzen zen bertan. Andreak berarengana joaten ziren: «Bittor! Hemen zagoz! Ba zeure ondoan joan behar dugu e?». Euskararen gainean hitz egiten joango ziren eta andreak poz-pez egoten ziren berarekin. «Badakizu ze arin ailegatu garen Bilbotik Bermeora? Geu konturatu ere egin barik». Jende guztiarekin apala zen Bittor.




Oroigarriak. Bermeoko euskaraz idatzitako antzerkiak



Izenen eta abizenen jatorria azaltzea gustatzen zitzaion eta jende askok galdetzen zion bere izenaren edo abizenen esanahia zein zen. Erdaldun batekin egoten zenean ere berdin: «zuk zein abizen daukazu? Baina zuk badakizu zer esan gura duen zure abizenak? Ba hauxe eta hauxe». Euskaldunekin zein erdaldunekin berdin jardungo zuen: «zein herritakoa zara?». Asko irakurtzen zuenez leku guztien berri jakiten zuen eta bere herriaren gaineko kontuak esango zizkion pertsona horri, berak ere ez zekizkienak beharbada. Pozgarriak izaten ziren jendearentzat horrelako jakingarriak.

Kanpoko edo herriko jendearekin guztiz irekia zen eta ondo zekiten bere herritarrek eta erbestetarrek euskararen nahiz kulturaren gaineko edozein autuz Bittor edozein argibide emateko prest edukiko zutena beti.



Bittor Gaubeka euskal kulturaren munduan ezaguna eta ospetsua bada argitaldari modura egin zuen lanagatik da. Hala ere, argitaldari on ez eze idazle ere izan genuen eta ez dira gutxi berak han-hor-hemen idatzitako artikulu eta lanak. Genero desberdinak landu zituen: ipuingintza —aipagarria da esate baterako *Polone neskatiltxuba* ipuina, 1921ean *Euzko Deya*-n agertu zena—, historia, euskara, iritzi-artikuluak.

Bere lehenengo lana, 1922ko *Euskera*-n agertu arren, 1920ko abenduan idatzi zuen. Gero kultur aldizkarietan askotan ere agertu zen Gaubekaren izena, «Gautarbi», «Bitxor», «Kistarzale», «Etxekua» eta «Garaitz» izenordez. Gaztetatik hasi eta idatzi zuen Bittorrek *Euzkadi*, *Euzko Deya*, *Busturiko Kistar Ikastia*, *Umetxuen adizkidea*, *Ereintza*, *Euzkerea*, *Agur* eta beste agerkari batzuetan. Historia aldetik bere lanik mamitsuenak hauek izan ziren: *Matxitxako*, *Bermeo'ko lenengo Eleizea*, *Domenigus* eta *Albonica*, *Alboniga*, *Almika*, *Almonika*, *Almunika*.

Berak idatzitako liburuak ere aurkitzen ditugu tartean: 1950ean ateratako *Bermeoko gabon-kanta zarrak* eta *Marijesiak: Gernikan eta albo-errietan kantetan diran lez*, esate baterako. Hauetan bietan ikerketa-lana burutu zuen, Bermeoko eta Gernikako kanta tradizionalen berri emateko asmoz.

Pedro Anasagastik bere omenezko artikuluan kontatzen digunez euskal hitzen eta toponimoen etimologia aztertzea oso gogokoa zuen eta Bermeoko hainbat izen ikertu zituen bere artikuluetan: Alboniga, Deminigus, Artigas eta abar. Nahiz eta etimologia ondo lan gaitza izan, ez zen bere ahalegina egin barik geratuko.



EUSKARA

Euskararen maitale edo euskaltzale sutsua zen Bittor. Bere idatzietan euskararenganako kezka eta ardura agertzen digu. Idatzi zituen artikuluetatik aparte kaleko jendearekin izan ohi zituen berbalditxoetan ere euskararen gaineko gaiez jardutea gustatzen zitzaion: euskal izenen eta abizenen jatorria eta abar.

Euskararen inguruan sarri izaten diren eztabaidak: «hango euskara hobea dela, beste hangoa eskasagoa» ez zitzaizkion gustatzen Bittorri. Euskara guztiak euskara direla esaten zuen eta ez zegoela zertan baztertu edo lurperatu behar hangoa edo bestekoa. Gaztelaniaz gertatzen zen moduan hizkuntza leku batetik bestera aldatu egiten da eta bakoitzak bere hitz egiteko modu berezia dauka. Euskara ere berdina zen horretan, ez zegoen zertan beste euskarak zapaltzen jardun guk hitz egiten dugunetik desberdinak direla eta. Aitzitik, euskararen desberdintasunak aberastasuntzat hartzen zituen. Eztabaiden kontrakoa zen eta euskararen batasunerako bidean izan ziren gorabeherak ez zituen oso gustukoak izan, berak bere iritzia eduki arren. Ez zitzaion gustatzen inor zapaltzea. Horretan ere bere jakintza eta bihotz zabala erakusten zituen.



Bere garaiko ohituraren antzera, euskal jatorrizko hitzak erabili ohi zituen Bittorrek, maileguak baztertuta. Bai bere idatzietan bai bere ahozko praxian ere horrelaxe jokatzeko zuen. Bere artikuluetan, garai horretan askotan gertatzen zen moduan, honelakoak ikus daitezke: «ludia = mundua», «izparringia = egunkaria», «notin = pertsona» eta abar.

Bere artikulu batean, esate baterako, «adizkidia», «laguna» eta «notina» nola bereizten diren edo bereiz daitezkeen azaltzen digu, gaztelaniazko *persona* hitza adierazteko berbarik egokiena *notin* dela dioskularik. Bere artikuluaren amaieran dioenez: «Orra or, ba geure euzkerearen aberastasuna, gauza bakotxarentzat itz bat; eta ez gauza asko adirazteko itz bakar bat».

BESTE HIZKUNTZAK

Bittor Gaubekak berezko joera eta erraztasuna zeukan hizkuntzetarako. Euskara zuen zalantza barik bere hizkuntza eta maiteen zuena baina honez gain gaztelania ere primeran menperatzen zuen eta gaztelaniaz ondo hitz egitea gustatzen zitzaion. Seme-alabei ere batzuetan zuzenketak egiten zizkien, «txarto esan duzu hori, irakurri egin behar duzu».

Frantzia eta Katalunian egon zenean frantsesa eta katalana ere ikasi zituen Bittorrek, dena ikasteko prest egoten zen.

AKADEMIA

Bere asmoa Azkueren bitartez Euskaltzaindian sartzea izan zen. Izendatua eta guzti izan zen horretarako baina gerraren gorabeherengatik bere asmo hori etenda geratu zen. Lehen, gerrak Bittor bere bidetik desbideratzea ez zuela lortu aipatu badugu ere, ez genuen esan nahi horrekin kalterik egin ez zionik. Gizatasunaren aldetik ez eze bere karreraren aldetik ere ondorio latzak izan zituen honek.

Akademiari asko lagundu zion *Euskera* aldizkaria hainbeste urtean argitaratuz eta berriro ere gerraren gorabeherengatik askotan kobratu ere egin barik.

Horrez gain «Euskaltzaindiak Bilbao'n, 1920'garreneko lotazillaren 26'garrenian euzkera-batasunatzaz ospatzen daun batzarreko artezkari ta bazkidiei» komunikazio bat idatzi zien, bere euskararen etorkizunerako iritziak eta ekarpena eskainiz. Bertan, euskararen batasunaren alde agertzen zaigu. Beste batzuk gipuzkera osotuaren alde agertzen ziren garaian Bittor Gaubeka bizkaiera osotuaren alde agertzen zaigu baina, berak ondo azpimarratzen duenez, beste euskalkiak baztertu barik. Batasunerako bidean euskalkiek euskarari emandako ugaritasunean, hitz bakoitza bere hobetasun eta artez-biderako banantzea proposatzen du, era berean aurrizkiak, tartizkiak eta atzizkiak ere bakoitza bere hitzetan egokitasunez erabiltzen delarik. Lexikoaren aldetik, beraz, euskararen arazo praktikoak ondo susmatu zituela esan behar dugu. Euskal hitz jatorren alde agertzen zaigu eta erdal usaineko hitz oro kendu behar litzatekeela diosku bere lan horretan. Artikuluaren amaieran, dena dela, esandako guztia batzar horren menpean lagatzen duela eta euskararen hobetasun eta alderako batzar horrek ebatziko zituen agindu eta arauak onesten dituela diosku.

Argitaratzaile baten gainean berba egitea berari lotuta agertzen diren idazleen eta lanen gainean berba egitea ere badenez, garrantzitsuenak edo esanguratsuenak aitatuko ditugu, Bitorren ekarpenaz hobeto oartzeko.


22



Gai horiezaz euskaraz argitaraturiko lehenengo liburuak

GAIAK

Gaiak era askotarikoak dira baina garrantzitsuenen artean ondorengoak egongo lirateke beharbada. Gai bakoitzeko adibideren bat aipatuko dugu, denak hona ekartzea luzeegia izango litzateke eta.



—Euskara

Bigarren euskalegunetako itzaldiak Doneztebe-n: 1923-garren iraillean ospatuak (Euskaltzaindiak antolatuak).

Gipuzkera osotua (Resurrección María de Azkuerena).

Los nombres de parentesco en vascuence (Gerhard Bähr-ena).

Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkaria ere berak argitaratu zuen oso-osorik 1929tik 1937ra bitartean gutxi gorabehera.

—Literatura

Egizko edertasuna: ipuin luzea (Jauregi'tar Koldobikarena).

Lugo'ko ipuin errikoiak (Augustin Zubikaraik euskaratutako ipuinak. Bittor hil eta ostean ere Zubikaraik bere literatura-lan asko argitaratu ditu Gaubekarenean, Gernikan).

Miren'en senargeya (José Antonio Oar-Arteta abade gernikarrarena).

—Erljioa

Andra Maria'ren Loretako illa (Francisco Albitzurirena).

Andra Marija Sortzez Garbiari bederatzziurrena (Pedro Juan Amutxategirena).

Eleiz abestiak.

—Zientzia

Kimia (Gabriel Jauregik egindakoa).
Pisia (Gabriel Jauregirena hau ere).

—Bermeo

Bermeoko gabon-kanta zarrak (berak argitaratutakoa).

Ordenanzas de la Cofradía de Pescadores «San Pedro» de Bermeo 1353 : VI centenario de su aprobación y confirmación 1953. (Bermeoko San Pedro kofradiak egindakoa).

Historia de Bermeo (Angel Zabala Otxamiz-Tremoiarena).

23



Gabriel Jauregi, *Pisia* eta *Kimia* liburuen egilea

BERMEOTARRIK BERMEOTARRENA

Bermeoko jaietako programak ere berak ateratzen zituen kontu handiz eta eurretan ez zen kulturaren gaineko artikulurik falta izaten. Bertan idatzi zituen berak ere historiaren aldetiko bere lanik mamitsuenak.



Bermeon, hain sarri erabiltzen zuen tren-geltokitik hurre

Hauek dira jaietako programetan 1971tik 1978ra bitartean berak idatzitako artikuluko batzuk: «Ntra. Sra. del Rosario de Santa María de la Atalaya», «Centenario de un ilustre bermeano (Segundo Ispizua)», «Deminigus», «Albonica, Alboniga,

Almika, Almonika, Almunika», «Mitología y leyendas bermeanas», «Bermeo, indagación etimológica», «Bermeo'ko erria maite izan eban gizon jakintun baten 100-garren urteurrena. Eleizalde eta Breñotza'tar Koldobika. 1878-1978».

Hil zen urtean, 1979an, Pedro Anasagasti bermeotar fraideak Bermeoko jaietako programan bertan Bittor Gaubekaren omenez idatzi zuen artikuluan «bermeotarrik bermeotarrena» deitu zion. Berak kontatzen digunez asko maite izan zuen bere herria, bere antzinako harriak, bere monumentu urriak, bere oroitzak argazkietan eta artikuluetan. Beste idazle askori egin zien bezala Anasagasti ere sarri zirikatzen zuen eta adorea ematen zion Bermeoren historiaren gaineko liburua alhora utzi ez zezan eta aurreratu zezan.

Bere bermeotartasuna ukatu barik, ezin uka litekeen gauza da eta, bere seme-alabek aitaren unibertsaltasuna ere azpimarratzen dute. Kultura izan zen Bittorren bizitzan grinarik handiena. Bere seme-alabek kontatzen dutenez etxean balantza bat zeukan, alde batean liburuak zeuden eta bestean frutak eta janariak, eta pisu gehiago edukitzen zuten liburuek. Bittorren bizitza bere balantza horren antzekoa izan zela esan dezakegu.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Bittor Gaubekaren seme-alabak*
- *Imanol Olazabal argazkilaria*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 1999ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: RGM, S.A.
Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-1447-3 (Obra osoa)
84-457-1451-1

L.G.: BI-2.682-99

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística